



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 20a

52 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskondeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 19/1986 Foru Legea aldatzekoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Enplegu Planean sindikatuekin hartutako konpromisoei eusteko xedea duten Nafarroako Gobernuaren ekintza politikoei buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egin (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernuak premiatzen da langabeziaren ondoriozko babesa eta enpleguari buruzko oinarritzko legea aldatzeko neurrien proiektua erretira dezan, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du NUPeko Errektoreak eta Gobernuaren Ordezkariek apirilaren 22tik 26ra bitarteko gertakarietan izan zuten jokabidea, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du indar politiko guztiek eskubidea eta betebeharrak daukatela Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturalean parte hartzeko, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak bultzatutako Kalitatearen Legea errefusatzeko, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat prestatzeko. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean izapidatzea (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, koitoaren ondoko medikamentuak emateagatik Andrea kolektiboari irekitako espedientean Osasun Departamentuak izandako jarduketari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andre-ak egin (12. or.).
- Galdera, Itoizko urtegiak ukitutako eremuaren garapenaren aldeko Fundazioari buruzkoa, foru parlamen-tari José Andrés Burguete Torres jaunak egin (13. or.).
- Galdera, haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzkoa, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egin (14. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 19/1986 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 19/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145, 149 eta 150. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 19/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzeari buruzko azaroaren 17ko 19/1986 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Emakumeek erabaki esparruetan izaten duten parte hartze maila herrialde edo erregio baten osasun demokratikoaren adierazle garrantzizkoa da. Emakumeak masiboki sartu badira ere esparru publikoan, berdintasun defizita sumatzen da oraindik partaidetza eta erabaki esparru zenbaite-

tan. Emakumeek eta gizonak berdintasunez parte hartzen duten parekotasunezko gizarte batean baizik ez daiteke demokrazia bere osotasunean garatu.

Beijingen 1995eko irailean onartutako ekintzarako plataformak ezarri du nazioartean hartutako konpromisoaren ildoak, emakumei erabaki politikoetan parte hartze aktiboa izatea eragozten dieten trabak kentzen joateko eta aukera berdintasunik ez dagoen gizarte baten errealitatea aldatzeko behar diren ekintza zehatzak gauzatzeko.

Plataforma horren ebazpenek haxe diote hitzez hitz: "gizon eta emakumeek erabakiak hartzeko aukera eta gaitasun berdina izatea erdiestearen ondorioz ezarriko den orekak hobeki islatuko du gizartean osaera; berdintasun hori, gainera, beharrezkoa da demokraziaren jardunbide egokirako". Beijingo ebazpenetan ageri ziren helburuak, berriz, hauexek ziren: "bidezkoa denean, neurriak hartzea, baita hautets sistemetan ere, alderdi politikoei emakumeak jar ditzaten postu publikoetan, hautatu beharrekoak direnetan zein ez direnetan, gizonen kopuru eta kategoria berberekin" batetik eta, bestetik, "emakumeek hautets organoetan duten ordezkartza politikoan hautets sistemek eragiten dituzten desberdintasunak aztertzea eta, beharra dagoenean, sistema horiek egokitu eta moldatzeko aukera ere ikertzea".

Europako Batasunak hainbat erabaki eta gomendio onartu ditu gizon eta emakumeen berdintasunezko partaidetzaren inguruan. Zehazki, Erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua izateari buruzko gomendioan (96/694/EE) gomendatzen da "gaia osotara bideratzeko estrategia integratu bat hartzea, erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko eta horretarako neurri egokiak –legeriaren arlokoak edo/eta erregelamendu mailakoak edo/eta sustatzekoak– hartzeko xedeekin.

2001. urtean Europako Parlamentuak eskatu zuen "genero orekaren alde egitea politika eta batzorde guztietan, bai Europako Batasunean bai nazioetan eta nazioartean, genero bakoitzaren partaidetza % 40tik beherakoa izan ez dadin".

Garrantzizkoa da hautets prozesuak antolatzeko dituzten legeek, Espainiakoez nola erregioetakoek, kasu honetan Nafarroakoak, konpromisoa hartzea genero berdintasunari begira, kasu honetan ordezkari politikoan eta esparru guztietan berdintasunari begira.

Hori dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako foru lege proposamen hau aurkeztu du:

Artikulu bakarra, foru legearen 9. artikulua ondotik artikulu berri bat gehitzekoa

9 bis artikulua.

Hautagaien zerrendetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izan beharko da, batzuen zein besteen kopurua ehuneko hirurogeitik gorakoa eta ehuneko berrogeitik beherakoa izan ez dadin.

Proporzio hori bera gordeko da zerrenda osoan eta zerrendako bost izenen tarte bakoitzean.

Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoiei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrek, 2002ko maiatzaren 9an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoiei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokratien Elkar-gunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoiei buruzko apirilaren 21eko 7/1987

Foru Legea hein batean aldatzekoa Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko ekainaren 7ko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Enplegu Planean sindikatuekin hartutako konpromisoei eusteko xedea duten Nafarroako Gobernuaren ekintza politikoei buruzkoa

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, Enplegu Planean sindikatuekin hartutako konpromisoei eusteko xedea duten Nafarroako Gobernuaren ekintza politikoei buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

PP alderdiaren gobernuak, UPNren laguntza duenak, enpleguaren alorrerako zenbait neurri iragarri berri ditu. Neurri nagusietako bat izanen da prestazioren bat jasotzen duten langabetuak lan egitera behartzea beraiena baino lanbide kalifikazio eta esperientzia gutxiagokoak diren lanpostuetan edo beraien bizitokitik kanpo dauden lanpostuetan, bertara 50 km baino gutxiago baldin badaude edo joan-etorriak egiteko 3 ordutik behe-

ra behar izanez gero. Era berean, enpresak langileak kaleratzen duenetik kaleratzea zein motatakoa den finkatzen duen epaia eman bitarte langile horri ordaintzeko betebeharra desagertu egiten da. Ez da garrantzi txikiagokoa, bestalde, langabeziagatik subsidioa eskubide subjektibo izatetik laguntza eskubidea izatera pasaraztea edo kaleratzeagatik kalte-ordainak errenta mailei gehitzea.

Laburbilduz, langabeziagatik prestazioak kobratzen dituztenei murrizten dizkieten neurriak dira, eta aldi berean ahanzi egiten dute prestaziorik kobratzen ez dutenen multzoa, langabetuen % 40, alegia. Familiari sostengua emateko diskurtsoari kontrajarria dago, lanpostu desegokietan aritzeko bizitokia aldatzera behartzen baitu. Horrekin batera, tramitazioko soldatak kentzeak bidegabeko kaleratzeari bidea irekitzen dio.

Nafarroako Gobernuak sindikatuekin hartutako konpromisoak eta PP-UPNren neurriak ez dira bat heldu. Gogorarazi daiteke, gainera, Nafarroako Gobernuak bere gain harturik duela enpleguaren arloko transferentzien zati bat.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

Zein izan behar da gobernuaren jarrera alderdi popularrak aurkeztu dituen neurri horiekiko? Zein jarduketa politiko egiteko asmoa du Enplegu Planean sindikatuekin harturiko konpromisoei eusteko?

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da langabeziaren ondoriozko babeseta eta enpleguari buruzko oinarritzko legea aldatzeko neurrien proiektua erretira dezan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da langabeziaren ondoriozko babeseta eta enpleguari buruzko oinarritzko legea aldatzeko neurrien proiektua erretira dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotarikoa Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierra andreak ondotik ematen den mozioa tramitatzeko eskatu du, puntuz puntu eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Estatuko Gobernuak langabeziaren erreformarako egin duen proposamen berriak (langabeziagatiko babesaren eta Enpleguaren lege oinarrikoaren erreformarako neurriak) langabezia daudenen eskubideak alderdi askotan murriztea ekarriko du: prestazioak murriztea, langabetuen bizimodua biziki gogortzea umilazio egoerak pairatzeraino eta abar. Neurri positibo bakarra du, ordea: erditu ondoko 24 hilabeteetan kontratatu daitezkeen emakumeen multzoa handitzea, urtebetez Gizarte Segurantzaren kostuen % 100eko hobarria ezarri. Aipatutako neurrietatik nagusiak hauexek dira:

1. Nekazaritzako araubide bereziko subsidioa aldatzea, haren onuradunen mugikortasun geografikoa bultzatzeko. Neurriaren helburua da nekazaritzako langile guztiak zerga sistema orokorrari atxikitzea, eta egungo egoeran utzi, soilik, nekazaritzako subsidio berezian daudenak. Neurri horren ondorioa izan daiteke errentetarako oina-

rizko laguntzarik gabe uztea estatuko landa eremu behartsuenetako 230.000 familia langabetu.

2. "Enplegu egokiaren" kontzeptua berriz definitzea, esanahia zabalduz alde guztietan: lanbidea, soldata, kontratua eta kokapena. Langabeziagatiko prestazio jasotzen duen pertsona batek ezin izanen dio uko egin aurrerantzean berea ez beste lanbide bateko lan eskaintza bati, Enpleguaren Zerbitzu Publikoak alde aurretik egokitzen jo baldin badu, lanpostu horri dagokion soldata prestazioa baino txikiagoa izan arren eta edozein kontratu motaren menpekoea, iraupena dena delako izanik ere eta langilearen bizitokirik 50 km-ko distantziaren barrenean baldin badago edo/eta joan-etorriak egiteko 3 ordu gehienez behar baldin badira edo gastua hilabeteko soldata garbiaren % 20 baino gehiagokoa ez bada.

Horrez gain, aurreko guztia loturik dago "langabeziagatiko prestazioen onuradunei jarduteko konpromisoa ezartzearekin". Delako agiria umiliagarria da eta haren bidez langabetua haren egoeraren erantzule eta erruduntzat hartzen da eta, langabeziagatiko prestazioaz gehiegi profitatu dezakeelakoan, behartu egiten du baldintza iraingarriak onartzera sistematik kanpo geldituko ez bada.

Ez da erraz jakiten zer egin behar duen gobernuak INEM enplegua eskain dezakeen erakunde bihurtzeko. Orain arte hutsaren hurrengoa izan da lan eskaintza jaso duten langabetuen kopurua. Nolanahi ere, begi bistakoa da bilatzen den xedea dela kosta ahala kosta murriztea prestazioak jasotzen dituzten pertsonen kopurua, eta horiek lan merkatu gero eta badaezpadakoago batera iraitzi.

3. Kasu batzuetan bateragarri bilakatzen ditu prestazioak eta soldatak. Hasiera batean 52 urte-tik gorakoentzat eta laneratzeko errenta aktiboaren onuradunentzat pentsaturik zegoen formula horrek enpresaburuaren esku uzten du langilearen subsidioa, enpresaburu horrek soldata osoaren eta subsidioaren arteko aldea baizik ez baitu ordaindu beharko.

4. Bidegabeko kaleratzeetan "tramitazioko soldatak" desagertu egiten dira. Bidegabeko kaleratzea dela medio lanik gabe gelditzen diren pertsonak kaleratu eta biharamunetik hasita hasiko dira

kobratzen langabeziagatiko subsidiarioa, epaitegian kaleratzearen kontra jotzen duela zein ez. Horrela, enpresaburuak aurreztu egiten ditu kaleratetik hasita langilea berriz ez onartzeko autoa, bidegabeko kaleratzearen inguruko epaiaren ondokoa, eman bitarte ordaindu beharko lituzkeen soldatak eta gizarte segurantzaren kotizazioak.

Neurri horrek langileen oinarrizko eskubideen murrizketa basatia dakar, kontratuak indarra delako kaleratzea bidegabekoa izan dela deklaratu ez den bitartean. Horrez gain, nabaria da enpresaburuentzat kaleratzearen kostua merkatu duela eta kalte ekonomiko larria eragiten duela kaleratutako langileen kasuan, tramitazioko soldatekin kalte-ordaina hobetu eta langabeziaren denbora luzatu egiten zelako, beranduago hasten baitzen.

5. Laneko kalte-ordainak langileen errentei gehitzen zaizkie, langabeziagatiko subsidioa jasotzeko behar den errentaren gehieneko muga gainditzen ote duten kalkulatzeko. Kalte-ordainak, zeinen helburua kaleratzeko sortutako kalteak arintzea baita, errenta pertsonal huts bihurtzen ditu neurri horrek, eta prestazioak berriz murriztu eta bertatik goztea du jomuga bakarra.

6. Diruz lagundutako enplegu publikoan langabeziagatik ez kotizatzea ezartzen da. Beste talde bati kentzen zaio langabeziagatik kobratzeko eskubidea, alegia, 2001eko erreforman sortu ziren laneratze kontratuen eraginpean daudenena; horiei gehitu behar zaizkie erreforma horrek berak zabaldu zuen prestakuntza kontratua dutenak (minusbaliatuak, langile atzeritarrak, 3 urtetik gora lanik egin gabe daramatenak, gizartetik bazterturik daudenak pertsonak eta tailer-eskoletan, lanbide etxeetan eta enplegu tailerretan sartzen direnak).

Neurri horiek langileen gizarte eskubideak nabarmen murrizten dituzte eta ez dute inongo logikarik ezaugarri hauek dituen testuinguruan:

a) Kontu publikoak ezin hobeak dira; b) defizit publikoa iraganeko kontua da; c) langabeziagatiko prestazioen kudeaketa "oso arrakastatsua" da, prestazioek barne hartzen dutena murriztuz (iaz langabetuen % 23 baizik ez zituzten hartzen kotizaziopeko prestazioek eta langabetuen % 31

LGSaren % 75eko subsidioak) langabeziaren sistemak superabit izugarria izan baitu 1998az geroztik (urte horretatik 2001. urtera bitarte, 10.130 milioi euroko soberakina pilatu du, ia 1,7 bilioi pezeta, eta 2002rako aurreikusi den superabita 3.257 milioi eurokoa da); d) iruzurraren maila txikia da; e) Espainiako estatuko estaldura maila Europako baxuena da; f) babesaldiak Europako laburrenak eta eskasak dituzten prestazioak eta babesaren intentsitatea azkarrago doa beheraka, Ekonomi Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen datuen arabera.

Litekeena da, aurreikustea zaila bada ere, gobernu zentralaren doktrina liberalarekiko zaletasuna izatea burugabekeria horien arrazoi nagusia, eta izatea uste duenik langabetuen kontrako eraso horiei esker zenbait lanbide eta estatuko aldetan eskasa omen den lan eskaintza hobetuko dela. Hitz batez, arazo guztiaren zergatia dela lan merkatuak gorde duen zurruntasuna, ez merkatuagatik beragatik, ahal den gehien arauz gabetu baita, langabeziaren sistemagatik baizik, haren komunikazio ontzia baita eta egiazko tapoia delako.

Neoliberalismo ekonomiko gordinenean oinarrituriko neurri hauekin, gobernuak alde batera uzten ditu gizarte ikuspegi berdintasunezko edo humanista oro eta egoera kaskarrena pairatzen dutenak, langabetuak, zigortu egiten ditu. Hori dela eta, honakoak aurkezten ditugu:

Erabaki proposamenak:

1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuari premiazten du "langabeziagatiko babesaren eta Enpleguaren lege oinarrizkoaren erreformarako neurriak" ezartzeko proiektua erretira dezan, onetsi gabe utziz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du estaldura mailak hobetzeko beharrezkoa den kontusaila gehitu diezaion enplegu planari, gobernu zentralak neurri murriztaileak aurrera eramaten dituen kasurako.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiazen du NUPEko Errektoreak eta Gobernuaren Ordezkariek apirilaren 22tik 26ra bitarteko gertakarietan izan zuten jokabidea

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiazen du NUPEko Errektoreak eta Gobernuaren Ordezkariek apirilaren 22tik 26ra bitarteko gertakarietan izan zuten jokabidea".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Talde Parlamentarioak Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta onar dadin.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle euskaldunek akanpada bat antolatu zuten campus-eko belardietan, Apirilaren 22tik 26ra, euskaraz ikasi eta bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko asmoz. Aste horretarako ekimen ugari prestatu zuen "Euskal Adarra" ikasle euskaldunen kolektiboak, eta sindikatu, alderdi politiko eta erakunde ugariaren babesa jaso zuen. Akanpadak ez zuen unibertsitateko bizitza akademikoa ezertarako oztopatzen, eta hainbat aldarrikapen plazaratu eta ekimen kulturalak eskaintzea beste helbururik ez zuen.

NUPEko errektoradutzak, ordea, akanpada debekatu eta polizia deitu zuen, parte hartzaileak kanporatu zituzan. Lehenengo gauean, apirilaren 22an, dozenaka polizia azaldu ziren, eta desalojoa agindu zuten. Ikasleek dendak kendu zituzten borondate oneko keinu gisa, eta hurrengo egunean, Apirilaren 23an, jarri zituzten berriro. Polizia berriz azaldu zen egun horretan bertan, eguerdian, eta jarritako kanpin dendak eraman zituen.

Adierazpen askatasunerako eskubidearen urraketa honen aurrean, dozenaka ikasle, hainbat irakasle eta langileek lagundurik, apirilaren 24an itxialdia egitea erabaki zuten protesta gisa (osotara 175 lagun bildu ziren). Polizia unibertsitatera bertaratu zen eta ikasleak bortizki atera zituen aulariotik: besoarekin lepotik estutuz, iletik tiraka, kolpeka, irainka... Pertsona horiek guztiak lurrean etzanarazi zituen poliziak, bata bestearen gainean, eta identifikazioak burutzeari ekin zion. Identifikatzeari uko egiten zioten lagunak komisaldegira eramaten hasi zen poliziak. Bitartean, dozenaka pertsona lurrean, bata bestearen gainean, egotera behartzen zituzten, eta kanpoan bildutako senitar-teko eta lagunak aurka kargatu egin zuten.

Oso tara 99 lagun eraman zituen poliziak komisaldegira, eta bertan irainak eta kolpeak errepikatu ziren. Hainbat orduz zutik eta burumakur egotera behartu zituzten, identifikazioak egin bitartean. Bi lagun ospitalera joan behar izan ziren. Azkenean, atxilotu guztiak libre atera ziren.

Hurrengo egunean, apirilaren 25ean irakasle eta langile talde batek itxialdia burutu zuen, aurreko gauean gertatutakoarengatik protesta egin eta atxilotuekin elkartasuna adierazteko asmoz. Berriro ere, polizia eraikinean sartu eta 16 atxilotu egin zituen.

Ez da lehenengo aldia unibertsitate publikoan mota honetako gertakariak jazo direna. Hiru urtetan zortzi aldiz sartu da espainiar polizia unibertsitatean protesta baketsuak zapuzteko asmoz, osotara 200 atxilotu baino gehiago egon direlarik (unibertsitateko ikasleen %2a baino gehiago), Pérez Prados errektorearen eta bere ekipoaren baimenarekin.

Oraingoan aurreko marka guztiak hautsi ditu Pérez Prados errektoreak eta gobernu ordezkariek. Eskubide demokratikoen egoera unibertsitatean guztiz eskandalugarria da. Ez dago pareko adibiderik Europa osoan. Nafarroako Parlamentua, nafar guztien eskubideen garrantzia den aldeetik, ezin da besoak gurutzaturik egon.

Arrazoi hauek guztiak direla medio, Batasuna talde parlamentariak honako mozio hau aurkezten du:

"Nafarroako Unibertsitate Publikoan apirilaren 22tik 25era egondako gertakarietan aurrean, Nafar-

roako Parlamentuak honako adierazpen hauek egiten du:

1. Unibertsitatea ikasketa akademikoak burutzeko ezezik, eztabaida librerako eta aldarrikapenetarako espazioa ere bada. Zentzu honetan, adierazteko, biltzeko eta mobilizatzeko eskubideak bereziki zaindu behar dira.

2. Apirilaren 22tik 25era unibertsitatean jazotako gertaerak oso larriak dira. Adierazpen eskubideaz baliatzeagatik 115 lagun bortizki atxilotzea erabat deitoragarria da.

3. Gertaera hauetan Pérez Prados errektoreak zein Gobernu ordezkariak izandako jokaera deitoragarria da.

4. Nafarroako Parlamentuak poliziaren ekin-tzen ondorioz mindutako lagunekin elkartasuna adierazten du.”

Iruñean, 2002ko maiatzaren 3an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du indar politiko guztiek eskubidea eta betebeharra daukatela Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean parte hartzeko

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, ”Nafarroako Parlamentuak adierazten du indar politiko guztiek eskubidea eta betebeharra daukatela Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean parte hartzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Talde Parlamentarioak Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatu eta onar dadin:

Azken hilabeteetan, maiz agertzen ari da Espainiako Gobernuaren bozeramaileen ahotik Batasuna legez kanpo uzteko asmoa. Ez dira berriak gure herrian horretako urrats errepresibok; gerra zikinari, torturei, heriotza zigorra extrajudizialari, atxilotetei eta kartzelaratzeari ezezik,

oldartze sasi-judizialari ere bidea eman zaio azkenaldi honetan, legez mozorrotutako errepresioa, alegia.

Estatu espainiarraren izaera errepresibo eta faxista, askotan ageri da eta guztiok, gure herrietan, gertutik jabetzeko aukera izan dugu, tamalez. Herriaren nahiari, askatasuna eta bakearen nahiari, estatuak gogor erantzun diote historikoki, errepresio politikoaren bidez, Euskal Herriaren hitza eta erabakia ekidin ahal izateko, azken finean, demokraziari beldurra diotelako.

Errepresioa etengabekoa eta iraunkorra izanik, batzuetan areagotu egiten da, hain zuzen, Estatuak beraien jarrera kolokan ikusten dutenean edota Euskal Herriak bere eskubide politikoak ozenki aldarrikatzen dituztenean, aldaketa politikotik hurbil egonez. Horrelaxe, Franco hil zorian zegoe-la, Estatu espainiarrak errepresio gordinari ekin zion, Euskal Herrian salbuespen-egoera ezarri-zion. Hil eta gero, sortutako erregimen birmoldatu honetan lege eta Tribunal berezi ugari ezagutu ditugu, soilik euskal herritarren borrokari aurre egiteko asmoz.

Oraingo honetan, Euskal Herriari inposatutako marko juridiko politikoa agortu denean, gehiagorik ematen ez duenean eta gizartearen gehiengo zabal batek argi eta garbi autodeterminazioaren alde jotzen duenean, Espainia, gure eskubide zibil eta politikoak aitortu beharrean, berriro ere, jauzi errepresibo bat ematen ari da. Euskal gizarte erakundeak, elkarteak eta erakunde politiko ezberdinak legez kanpo utziaz eta euren kideak kartzela-

ratzearekin batera, 200.000 euskal herritarron ordezkartza politikoa ezabatu nahi dute, Batasunaren ilegalizazioaren bitartez. Tamainako eraso, berriro ere, Euskal Herri osoari zuzentzen zaio eta oraindik ere, gizartearen haustura bortitz hau eraginez, egon daitezkeen ondorio instituzional, politiko eta sozialak, neurtezinak dira.

Batasuna ilegalizatzeko, Espainiako Gobernuaren egitasmo honen aurrean, gizartearen kezka eta larritasuna egunero azaltzen ari dira, eragile ezberdinek jarrera plazaratuz. Gizarteak ere, beraz, euskal erakundeei eta ordezkari politikoei jarrera agertzeko eskatzen die. Honenbestez, Nafarroako Parlamentuak hartzen ditu ondoko ebazpenak:

1) Indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea eta beharra dute. Beraz, aukera politikoen aniztasuna errespetatu behar da.

2) Ez Batasuna ezta inolako indar politikorik ere, ezin direla ilegalizatu eta jarduera politikotik alboratu, Euskal Herriaren demokrazia eta euskal herritarron eskubide zibil eta politikoa lortzeari ekiten diotenak ezabatuz, alderdi batzuen jokararen moldaketa dela medio.

3) Euskal Herriko gainerako antolakunde politikoekin berdintasunean parekatuz, Batasunaren partehartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko, beharrezko ekintza guztiak gauza ditzan.

4) Akordio hau, ondoko pertsoneri helaraziko zaie: Botere judizialaren Independentziarako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza-Eskubideen Batzordekoa); Adierazpen Askatasunerako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordekoa); eta Europako Giza-Eskubideen Epaimahaiari.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 3an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak bultzatutako Kalitatearen Legea errefusatzeko du

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak bultzatutako Kalitatearen Legea errefusatzeko du".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Talde Parlamentarioak Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, osoko bilkuran eztabaidatu eta onar dadin:

Batasunak jabeldura bat aurkeztu zion Nafarroako Gobernuari, honek Kalitatearen inguruan zuen jarrera argitu zezan eta komunikabideetan egindako adierazpenak azaldu zitzaizkien. Jabeldura horri erantzunez, Maiatzaren 9ko Osoko Bilkuran hezkuntza kontseilari Lagunak hezkuntza erreforma baten beharra azpimarratu eta Kalitatearen Legearekiko adostasuna erakutsi zuen.

Bien bitartean, Madrili Kalitatearen Legearen inguruan garatzen ari den eztabaida-prozesua aurrera doa. Madrilen eztabaidatzen eta erabakitzen ari dira Nafarroako hezkuntza errealitatean eragin nabarmena izango duten neurriak. Egungo marko juridiko-politikoaren ondorioz, berriro ere nafarrok ez dugu zer esanik guri dagozkigun gaien inguruan.

Era honetan, Nafarroako Parlamentua Kalitatearen Legearekiko jarrera azaldu behar du. Eta, gure ustez, azaldu beharreko jarrera aurkakoa izan behar da, honako hiru arrazoi hauek direla medio:

1. Berriro ere Madrilen finkatuko delako Nafarroako hezkuntza errealitatea baldintzatuko duen legedia. Teorian hezkuntza mailako erabateko

eskumenak baditugu ere, praktikan Madrilen finkatzen diren hezkuntza ardatzak kudeatzeko aukera baino ez zaigu geratzen Nafarroan.

2. Kalitatearen Legeak espainiar estatuko hezkuntza errealitatea gehiago berdindu, zentralizatu eta fiskalizatu nahi duelako.

3. Kalitatearen Legea hezkuntzaren ikuspegi atzerakoi batean oinarritzen delako. Parte hartzea gutxitu, autoritarismoa handitu, bazterkeria baimendu eta azterketa-sistema indartu nahi du aipatu legeak.

Beraz, Batasuna Talde Parlamentarioak honako ebazpen-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiar Gobernua bultzatzen ari den Kalitatearen Legea errefusatzeko du.

2. Nafarroako Parlamentuak kalitatezko hezkuntza eredu parte hartzaile, berritzaile eta integratzaile baten aldeko jarrera adierazten du.

3. Nafarroako Parlamentuak nafar guztion beharrei erantzun dion hezkuntza sistema propio baten aldeko jarrera adierazten du, Nafarroari dagozkion hezkuntza erabakiak Nafarroan bertan har daitezela.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 9an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan". Mozio hau Osoko Bilkuran izapidetu behar zen, eta Industria,

Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2002ko apirilaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Galdera, koitoaren ondoko medikamentuak emateagatik Andrea kolektiboari irekitako espedientean Osasun Departamentuak izandako jarduketari buruzkoa*FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak koitoaren ondoko medikamentuak emateagatik Andrea kolektiboari irekitako espedientean Osasun Departamentuak izandako jarduketari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak Osasun Batzordean ahozko erantzuna eman dakion eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, ahozko galdera honi Mahaiak eta Eledunen Batzarraren iritziz dagoen batzordean erantzuteko eskatu du.

Zioak

2001eko urriaren 5ean, Foru Komunitateko egoerari buruzko eztabaida zela-eta, Parlamen-

tuak honako erabaki hau hartu zuen, Biltzarreko ordezkarien gehiengoak onetsirik:

“1. Nafarroako Gobernua premiatzea Andrea-
ren aurka abian den espedientea deusezta dezan;
espedientea ireki zen ginekologo batzuek kolekti-
bo horri laguntza eman ziotelako behar zituzten
emakumeei koitoaren ondoko medikamentuak
banatzeko, joan diren San Ferminetan.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea Nafarroa-
ko Parlamentuak koitoaren ondoko pilularen
banaketari eta finantzaketari buruz onetsitakoa
bete dezan.”

Halere, joan zen maiatzaren 3an, Parlamen-
tuaren erabaki horrek aipatzen dituen arrazoi-
en artean Nafarroako Gobernuko Osasun Departa-
mentuak Andrea elkarteari ezarritako
zehapenaren berri izan genuen, neurritz kanpoko
zenbatekoarekin, gainera: 3.005 euro. Hori dela
eta, haxe galdetu nahi dugu:

Pentsatu al du Nafarroako Gobernuak Parla-
mentuaren gehiengo demokratikoak harturiko era-
baki hori betetzea? Hala bada, zer egiteko asmoa
du Osasun Departamentuak Andrea elkartearen
kontra irekitako espedientearen aurrean? Ez badu
bete behar, zein dira horretarako arrazoiak?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Galdera, Itoizko urtegiak ukitutako eremuaren garapenaren aldeko Fundazioari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Itoizko urtegiak ukitutako eremuaren garapenaren aldeko Fundazioari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan. 2000ko ekainaren 22an Nafarroako Parlamentuak eginiko Osoko Bilkuran onetsi zen Agoizko eskualderako garapen sozioekonomikorako plan bat prestatzea, eskualde horretako biztanleek hainbat onura izan ditzaten eta Itoizko urtegia eraikitzearen kalte handiena beraiek jasatearen truke ordaina jaso dezaten. Plan hori egin behar litzateke ukituriko sektoreekin eta zeresana daukaten Administrazio Publikoekin lankidetzan eta horien parte-hartzearekin. Halaber, Nafarroako Parlamentuak Itoizko urtegiaren ingurunea gozatzeari, bertako ingurumena zaintzeari eta haren erabilerei buruzko plan bat egitea onetsi zuen, bai eskualde horretako udalek bai gizarteak oro har Itoizko urtegiak ekarritako errealitate berriaren ondoriozko onura eskuratu ahal izan dezaten.

Bestalde, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatu zuen aktiboki esku har

zezan Ebroko Konfederazio Hidrografikoak sustatutako "Pirinioetako Itsasorako garapen estrategia" izenekoaren prestaketan, zeinean Aragoiko Gobernuak ere parte hartzen baitu. Esako urtegiaren handitzeak kaltetutako herriak ez ezik, planak kontuan izan behar zituen, baita ere, handitzearen eraginpeko eremuan egonik zuzeneko onura izan dezaketen herriak. Plana aurrera eramateko, proiektuarekin zerikusia duten administrazio guztiek eginen dituzte ekarpen ekonomikoak; horretan ikusiko da horien esku hartzea.

Garapen plan horrek hurrengo hobekuntzak jaso beharko ditu: errepide sarea, bai eta kultur ondarea, eskaintza turistikoa eta oinarrizko azpiegiturak ere; halaber, handitutako urtegiaren uren jolas- eta kirol-erabilera ere jasoko du. Hori guztia eginen da ukitutako udalei entzunda eta horien parte-hartzearekin.

Era berean, fundazio bat sortu zen, zenbait toki entitateen eta foru gobernuaren partaidetzarekin, Itoizko urtegiak ukitutako aldeak garatzeko plan bat egiteko. Horrexegatik, hauxe jakin nahi dugu:

1. Zein dira foru gobernuak hartu dituen neurriak Itoizko urtegiak ukitutako aldeak garatzeko fundazioa eratu zenez geroztik?
2. Zein izan dira eman diren urratsak Esako urtegiaren handitzeak ukitutako aldeak garatzeko plana prestatzeko?
3. Urtegi horiek ukitutako toki entitateek proiektu ezberdinak aurkeztu ahal dizkiote Ebroren Konfederazio Hidrografikoari gauzatu daitezkeen?
4. Ba al daki foru gobernuak aurrekontuko konutsail zehatzik dagoen Estatuko aurrekontuetan garapen plan horietarako?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Galdera, haurrentzako parke publikoak arautzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak haurrentzako parke publikoak arautzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Demokratien Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregulamentuaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Argi dago haurraren garapenean haur-parkeek berebiziko garrantzia dutela, baina, sarritan, ahan-tzi egiten dira helduoi –zer esanik ez haurrei– oharkabean pasatzen zaizkigun hainbat alderdi, hala nola haur-parkeetako aparatuen segurtasuna, kalitatea eta kontserbazio-egoera.

Aparatu horien ezaugarriak direla-eta, oharkabean pasatzen zaizkigu akats larri asko: euste-sistema desegokiak, pieza solteak, hortik ateratzen diren torlojoak –estropazu egin eta zauriak eragiteko modukoak–. Babesik gabeko altuera gehiegizkoak, gogorregiak izateagatik batere gomendagarriak

ez diren zoruak, inguruetan kristalak egotea, ezpalak, eragin gutxiko indargetze-sistemak... haur-parke guztietan izan ohi dira, eta nahikoa

litzateke segurtasunari buruzko arau batzuk ematea, administrazioak orain artekoak baino kontrol estuagoak egitea, horiek denak gutxitu eta leuntzeko.

Zoritxarrez, Espainiako legerian ez da haur-parkeen segurtasunari eta horietako aparatu eta instalazioen kalitateari buruzko araurik. Halakorik izan arte, aldi baterako neurriak har litezke, haurren jolas-eremuetako ekipamenduak normalizatzeko arau tekniko batzuk –aparatu horien segurtasuna eta kalitatea kreditatzen dutenak– onestearren. Araudi horri esker, udalek zeri eutsi izanen lukete eta zorrotzago eta lege-babesarekin kontrolatuko lituzkete haur-parkeak, eta orobak ekidinen litzateke arlo horretan dagoen lege-hutsunea. Hartara, Nafarroako Parlamentuak, 2000ko ekainaren 27an eginiko Osoko Bilkuran, erabaki proposamen bat onetsi zuen, eta haren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen zuen zortzi hilabeteko epean haur-parke publikoak lege arautzeko proiektu bat aurkez zezan. Proiektu horrek haur-parkeen osasungarritasuna, segurtasuna eta egokitasuna bermatuko ditu”.

Nafarroako Parlamentuak onetsitako erabaki proposamen horren aurrean, hauxe jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Gobernuak onartu al du foru dekretu hori, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak duela ia bi urte onartu zuenari jarraikiz?

2. Erantzuna ezezkoa bada, zein dira arrazoiak Nafarroako Parlamentuak, batzorde hartan zegoen UPNren taldearen sostenguekin, onetsitako erabakia ez betetzeko?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	